

Uztaila Abuztua Iraila



ONTZIAK

107 Kg

KONTSUMOA

Uztailan eta abuztuan izaten den aktibitate jaitzieraren ondorioz, hirugarren hiruilekoa izaten da hondakin gutxien jasotzen diren sasoiak.



PAPERA

61.500 orri

KONTSUMOA

Uztailan aurreko urteko orri kopuru berdintsua kontsumitu da (20.500 orri). Abuztuan, kontsumoak gora egin du: 10.500 orri kontsumitu dira aurten, eta 2017an, aldiz, 5000 orri. Irailan, bestalde, ikasturte hasierarekin kontsumoak gora egiten du nabarmen. Hala ere, aurtengo irailan aurreko urtekoan baino gutxiago kontsumitu dugu.

1.275 kg

BIRZIKLATZEA

Edukiontzia urdinetan aurreko urteko 3. hiruilekoan baino 1.135 kg gutxiago jaso dira.

PAPERIK GABEKO EGUNA

6. urtez jarraian, **abenduaren 14an**, Paperik Gabeko Eguna ospatuko dugu Fakultatean. Egunaren xedea, kontsumoa jaisteari begira, gure paper erabileraren inguruan gogoeta egitea da. Gainera, egunean zehar, ekimen bereziren bat ere antolatu ohi da.

Gutxi barru Paperik Gabeko Egunaren 6. edizioaren berri izango duzue.



IKASLE: HARTU PARTE FAKULTATEKO INGURUMENA HOBETZEKO TALDEAN ETA LORTU HAUTAZKO KREDITUAK

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko Ingurumena Hobetzeko Taldeak, ekintzak planifikatu, gauzatu eta ebaluatzen ditugu, gure ikastegiak ingurumenean daukan eragina murrizteari begira. Ekintza horietako batzuk, adibidez, kontsumoa (materiarena edo energiarena) murriztu/optimizatzeke izaten dira, eta urte bakoitzerako egiten dugun Ingurumena Hobetzeko Planean jasotzen dira.

Gure taldeko ateak zabalik daude, bertan parte hartu nahi duen ikasle guztientzat. Gainera, UPV/EHUko Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kultur-gintzaren arloko Errektoreordetzak ikasleak bultzatu gura ditu talde hauetan parte hartzera eta ekarpenak egitera unibertsitateko ikastegiaren kudeaketa jasangarriarako ekimenetan. Hori dela eta, hautazko kredituak aitortuko dizkie Ingurumena Hobetzeko Taldeetan parte hartzen duten graduako ikasleei.

Interesa baldin baduzu, idatzi gkz.ekoscan@ehu.eus helbidera.

Informazio gehiago: <https://www.ehu.eus/es/web/iraunkortasuna/ingurumena-hobetzeko-taldeak>

¡Anima zaitetz!

BIRZIKLATU DEZAGUN PAPERA MODU EGOKIAN! Edukiontzi urdina





BAI

Egunkariak eta aldizkariak.
Propaganda.
Paperaren deribatuak, garbiak.
Koadernoak (alanbrerik, graparik eta abarrik gabe).
Embalatzeko papera.
Kartoizko kutxak.
Liburuak.



EZ

Paper zikina
Erabilitako ezpainzapiak.
Aluminiozko papera.
Paper metalizatu edo plastifikatua.
Kalko-papera.



MUNDUARI HAMARKADA BAT GERATZEN ZAIO KLIMA-ALDAKETA KONTROLATZEKO

Berotze globala kontrolaezina bilakatzea nahi ez badugu, hamarkada bat geratzen zaigu beharrezkoak diren neurri zorrotzak hartzeko. Ondorio horretara iritsi da NBERen Klima-Aldaketaren Nazioarteko Taldea berriki argitaratu duen txostenean. Planetaren tenperaturak gora egiten jarraitzen badu, lehorteen, uholdeen, sekulako beroaldiak eta milioika pertsonen pobrezia gora egingo du.

Orain arte pentsatzen zen, mende honetan tenperatura igoerak bi graduren azpitik mantenduz gero, etorriko ziren aldaketei aurre egiteko gai izango ginela. Baina argitaratu berri den txostenak azpimarratzen duenez, tenperatura igoera 1,5 gradutik igaroz gero, Lurreko bizigarritasuna arriskuan ipiniko da.

"2 gradurekin alderatuz, berotze globala 1,5 gradura mantentzeak, onura handiak ekarriko ditu. klima-aldaketak izango lituzkeen inpaktuak Modu nabarmenean murriztuko lirateke", IPPCKo (Klima-Aldaketaren Adituen Gobernuarteko Taldea) Jim Skea irakaslearen hitzetan.

Gaur egun, energiaren %85a iturri fosiletatik datoz, eta, datozen hamarkadetan, iturri berriztagarriengatik aldatuak izatea beharrezkoa da.

[Berria hemen](#)

Mesedez ez inprimatu aldizkari hau, espresuki pantailan ikusteko eginda dago. Aurrez dezagun toner/tinta eta papera!.

Hemen proposatutako ideien bat gauzatu nahi baduzu eta ez badakizu nola egin, edo iradokizun, ideia edo proposamenen bat baldin badaukazu, jar zaitez gurekin harremanetan honako helbide elektroniko honetara zuzenduta: gkz.ekoscan@ehu.es